



**OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA**

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako
Sailburuordetza
*Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Calidad, Investigación
e Innovación Sanitaria
*Dirección de Gestión del Conocimiento y
Evaluación*

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
OSPITALEETAKO ALTEN ERREGISTROAREN
TXOSTENA**

2009

2010eko abendua

Manuel Errezola Sáizar
Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua

SARRERA

Txosten honetan 2009. urteko Ospitaleetako Alten Erregistroan (OAE) aitortutako datuak aztertzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ospitaleetan artatutako gaixoei buruzko informazioa eskaintzen da. Datuok azaroaren 3ko 303/1992 Dekretuak sortutako Datuen Gutxieneko Oinarrizko Bildumatik (DGOB) hartu dira.

EAEko DGOB administrazio-erregistro bat da, eta aldagai kliniko, demografiko eta administratibo batzuk biltzen ditu. Aldagai horiek osasun zentro guztien (publikoen zein pribatuen) ospitalizazio-gertakariak jasotzen dituzte. Aipatutako zentroyen multzoan ez dira arreta psikiatrikoko zentroak sartzen.

MATERIALA ETA METODOAK

EAEko ospitale publiko eta pribatuetan 2009an alta emandako gaixo guztien altak hartu dira kontuan. Azterketa-unitateak ospitalizazio-gertakariak dira.

Arreta-mota bi talde handitan sailkatu da: *ohiko ospitalizazioa*, egun bat edo gehiagoko ospitalizazio guztiak nahiz egun bat baino gutxiagoko larrialdiko ospitalizazio guztiak (alta-txosten bat sortu dutenak) hartzen dituenak; eta, bestetik, *prozesu programatu anbulatorioak*, egun bat baino gutxiagoko egonaldiko ospitalizazio programatuak hartzen dituenak.

Aztertu diren aldagaiak Erregistroa sortzeko Dekretuan eta hura garatu duen Eskuliburu teknikoan jasotakoak dira. Artatutako gaixoei buruzko oinarrizko datuez gainera (sexua, adina, bizi den lurralde historikoa, ospitalea, ospitalizazio-mota, alta-mota, alta-zerbitzua, etab.), beste bi adierazle garrantzitsu ere aztertzen dira:

1. Batez besteko egonaldia. Egonaldi-kopuruaren eta alta-kopuruaren arteko zatidura da.
2. Erabilera-tasa. Maiztasun-tasa ere esaten zaio, eta urtean 1.000 biztanleko izaten diren alta-kopurua da; izendatzaile moduan, EAEn 2009rako zenbatetsitako biztanleriaren datuak erabili dira.

Datuen kalitatea aldagai klinikoaren betetze-mailaren adierazleen bidez neurtzen da, zeharka: diagnostikoen batezbestekoa, diagnostiko nagusirik gabeko altak eta prozeduren batezbestekoak. Horrez gain, administrazio-aldagaien betetze-mailaren arabera ere neurtzen da.

Datuen analisisa deskriptiboa da, eta oinarrizko administrazio-aldagai eta aldagai kliniko hauei egiten die erreferentzia: diagnostiko nagusia eta lehenengo prozedura-eremua. Diagnostiko ohikoenen taula egiteko, CIE-9-MC-ko diagnostiko nagusiaren lehen hiru digituak erabili dira, eta prozedura-tauletarako, sailkapen horretako lau digituak. Aldagaien bat bete gabe zuten altak baztertu egin dira aldagai horri zegokion azterketan. Hainbat zentrotan etxeko ospitalizazioko altamotak kodetzean izandako arazoak direla eta, kasu guztiak etxeko altatzat hartu dira.

Txosten honetan xehetasunez aztertzen dira EAEko ohiko ospitalizazioko kasuak. Prozesu programatu ambulatorioei dagokienez, kirurgia handi ambulatorioak soilik aztertu dira (kasu horien %69 dira), gainerako prozesuen erazagutzea (kirurgia txikia, eguneko ospitale medikoa, etab.) oraindik ez baitago behar bezala finkatuta EAEn. Prozesu ambulatorioak sailkatzeko, Osakitzetza/Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Arretarako Zuzendaritzaren prozeduren taldekatzaile bat erabili da. Bi kasuetan, azterketa EAEko biztanleen aldetan oinarritzen da.

1. eranskinean aitortutako alta guztiak xehatzen dira, ospitale-motaren eta jasotako arreta-motaren arabera.

EMAITZAK

1. Datu orokorrak

2009an, 325.998 alta aitortu ziren EAEko ospitale publiko eta pribatuetan (hau da, 2008an baino %0,7 gutxiago).

1. taulan ikusten den moduan, Osakidetzako akutuen ospitaleetakoak eta akutuen ospitale pribatuetakoak dira alta gehienak, %71,6 eta %25,5, hurrenez hurren.

Alta guztietatik, 317.510 (%97,4) EAEn bizi diren pertsonei dagozkie (2. taula).

Bertakoen ohiko ospitalizazioei erreparatuz gero, 3. taulan diagnostikoen batezbestekoa eta prozeduren batezbestekoa jasotzen dira, ospitale-motaren eta ospitale zehatzen arabera. Diagnostikoen batez bestekoari dagokionez, handiagoa da akutuen ospitale publiko gehienetan, akutuen ospitale pribatuekin alderatuta; egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan, aldiz, banaketa heterogeneoagoa da. 18 kasutan ez da diagnostiko nagusia kodetu (0,75 kasu 10.000 altako), baina kontuan hartu dira azterketa honetan, kasu horietan egindako prozedurak jaso baitira. Prozeduren batezbestekoari dagokionez (aitortutako edozein prozedura kirurgiko edo ez-kirurgiko hartu da kontuan), ospitaleen arteko banaketa heterogeneoa da.

2. Akutuen ospitaleak

4. taulan ohiko ospitalizazioan alta jaso duten gaixoen batez besteko adina eta batez besteko egonaldia jaso dira. Ikusten den moduan, gaixoen batez besteko adina antzekoa da akutuen ospitale publiko nahiz pribatuetan, baina egonaldiaren batezbestekoa 2,6 egun gehiagokoa da ospitale publikoetan (6,7 publikoetan eta 4,1 pribatuetan).

Ospitalizazio-motari dagokionez, akutuen ospitale publikoetako ospitalizazioen % 71 larrialdikoak dira; akutuen ospitale pribatuetan, ordea, ospitalizazioen %77 ospitalizazio programatuak dira (5. taula).

Alta-motari dagokionez, akutuen ospitale publikoetan, alden %92an pazienteak etxera bidaltzen da; ospitale pribatuetan, berriz, alden %96an bidaltzen da etxera (kategoria honetan etxeko ospitalizazioko altak kontuan hartzen dira). Heriotza-tasa %3,6koa izan da ospitale publikoetan, eta %2,2koa ospitale pribatuetan; izan ere, ospitale publikoetan artatutako kasuak konplexutasun handiagokoak dira. Gainerako norakoak 6. taulan xehatu dira.

Alta-zerbitzuari dagokionez, alta gehien eman dituzten zerbitzuak traumatologia, kirurgia orokorra, barne-medikuntza eta tokoginekologia dira. Termino erlatiboetan, akutuen ospitale publikoetan pisu handiagoa dute tokoginekologia, kardiologia, pneumologia, digestibo eta neurologiako espezialitateek; akutuen ospitale pribatuetan, berriz, traumatologia eta kirurgia orokorreko espezialitateak dira nagusi (7. taula).

8. taulan adinaren eta sexuaren arabera jaso da. Gizonetan, ospitalizazio gehienak 60-74 adin-tartean izaten dira; emakumeetan, berriz, bi adin-tarte daude: 30-44 artekoa eta 75-89 artekoa.

9a eta 9b tauletan altak adinaren eta lurralde historikoaren arabera jasotzen dira, ospitale publiko eta pribatuetakoak, hurrenez hurren. Ospitale publikoetan, urteko berrospitaleratze-tasa (pertsonako alta-kopurua 2009an) eta batez besteko adina pixka bat handiagoak dira gizonetan, emakumeenekin alderatuz gero; izan ere, emakume gazteetan erditzeek eragindako ospitaleratzeak hartzen dira kontuan, eta kasu horiek ia ez dute berrospitaleraterik eragiten. Ospitale pribatuetan, berriz, ia ez dago alderik. Bestalde, urteko berrospitaleratze-tasa handiagoa da ospitale publikoetan pribatuetan baino, eta horren arrazoa da ospitale publikoetan artatutako kasuak konplexutasun handiagoa dutela. Azkenik, erabilera-tasak lurralde historiko bakoitzeko ospitale publiko eta pribatuen erabilera-maila erakusten du. Nabarmentzekoa da Bizkaian akutuen ospitale publikoen erabilera-tasa Arabakoa eta Gipuzkoakoa baino dezente txikiagoa dela, eta gauza bera gertatzen dela Araban akutuen ospitale pribatuekin.

10. taulan diagnostiko- eta adin-taldearen arabera jaso dira altak. Bi sexuen guztizko kopuruan, bi talde ohikoenak zirkulazio- eta digestio-aparatuko gaixotasunak dira, eta, ondoren, arnas aparatuko gaixotasunak. Termino erlatiboetan, gizonetan zirkulazio- eta digestio-aparatuko gaixotasunek pisu handiagoa dute; emakumeetan, nabarmentzen den talde bakarra haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko konplikazioak dira (erditze arrunta ere kontuan hartzen da). Arreta-mota horretako alta guztien % 2,6 V kodeei dagokie; kode horiek 001-999 diagnostiko-kategorietan sailkatu ezin diren arazo edo zainketa jakinak sailkatzeko erabiltzen dira.

Diagnostiko-taldeen eta lurralde historikoen arabera altei dagokienez (11. taula), termino erlatiboetan, alde handienak neoplasietan daude: Bizkaian ohikoagoak dira Araban eta Gipuzkoan baino. Arnas aparatuko gaixotasunei dagokienez, berriz, ugariagoak dira Araban eta Gipuzkoan, Bizkaian baino. Baina azpimarratu behar da alde horien esanahia metodo egokien bidez baieztatzea komeni dela.

12. taulan akutuen ospitalizazio publikoko ohiko ospitalizazioko 25 diagnostiko ohikoenak jaso dira, sexuka. Lehenik bihotz-gutxiegitasuna eta, bigarrenik, kolelitiasia dira ohiko ospitalizazioen bi kausa nagusiak. Gizonetan, batez besteko adin handiena bihotz-gutxiegitasunei dagokie, eta 75,4 urtekoa da; kasu horien batez besteko egonaldia nahiko luzea da (8,3 egun). Emakumeetan, batez besteko adin handiena izterrezurraren lepoaren hausturari dagokio, eta arazo horrek eragiten du batez besteko egonaldi luzeena.

13. taulan datu horiek berak jasotzen dira, baina akutuen ospitale pribatuetarako. Horietan, belauneko barne-asaldura eta osteoartrosia dira ospitalizazioaren bi kausa ohikoenak.

14. taulan, akutuen ospitale publikoko ohiko ospitalizazioko 25 prozedura ohikoenak jaso dira, sexuka. Emakumeetan, bi prozedura ohikoenak hauek dira:

“eskuz lagundutako beste erditze bat” eta zesarea zerbikal baxua. Gizonetan, berriz, “maskuriko lesio edo ehunaren beste eszisio edo suntsitze transuretral bat” eta “beste apendizektomia bat”. Gizonetan nahiz emakumeetan, batez besteko adin handiena aldakaren zati bat ordeztari dagokio (82,2 eta 85,1 hurrenez hurren); egonaldi luzeenak, berriz, izterrezurraren hausturaren murrizketa itxiari (15,0 eta 14,8).

15. taulan datu horiek berak jasotzen dira, akutuen ospitale pribatuetarako. Horietan, belauneko artroskopia eta angioplastia koronarioa dira prozedura ohikoenak gizonetan, eta “eskuz lagundutako beste erditze bat” eta belauna guztiz ordezte emakumeetan. Ospitale publiko eta pribatuetako datuak alderatuz gero, alde handiak ikusten dira prozedura jakin batzuetako gaixoen batez besteko adinean eta batez besteko egonaldian.

16. taulan kirurgia handi anbulatorioko alden kopurua eta batez besteko adina xehatzen dira, ospitale-motaren eta ospitalearen arabera; ikusten den moduan, batez besteko adina txikiagoa da akutuen ospitale pribatuetan (61,0 publikoan eta 56,5 pribatuetan). Taula honetan beste prozesu anbulatorio batzuen aitortpenen heterogeneotasun handia ere ikusten da.

17. taulan akutuen ospitale publikoko kirurgia handi anbulatorioko 25 prozedura ohikoenak jasotzen dira, sexuka. Prozedura kirurgikoen lehen eremuko lehen bi digituak erabili dira horretarako. Prozedura ohikoenak, alde handiz, “kristalinoko ebakuntzak” dira bi sexuetan, eta bigarrenak, baina alde handiz, “erretina, koroide, gorputz beirakara eta atzeko ganberako ebakuntzak” eta beste prozedura batzuk.

18. taulan datu horiek berak jasotzen dira, akutuen ospitale pribatuetarako. Horietan ere, prozedura ohikoenak “kristalinoko ebakuntzak” dira emakume nahiz gizonetan, baina termino erlatiboetan beste bi prozedura ere nabarmentzen dira: “hodien ebakidura, eszisioa eta oklusioa” eta “artikulazio-egituren ebakidura eta eszisioa”.

3. Egonaldi ertain-luzeko ospitaleak

19. taulan, ospitale-mota horietako ohiko ospitalizazioan alta jaso duten gaixoen batez besteko adina eta batez besteko egonaldia jaso dira. Ikusten den moduan, gaixoen batez besteko adina antzekoa da ospitale publiko nahiz pribatuetan, baina batez besteko egonaldia oso desberdina da. Ospitale batzuetako batez besteko egonaldia oso laburra da, Santa Marinakoa, esaterako (11,8 egun), eta beste batzuetan oso luzea, Araba klinikan, esaterako (267 egun).

20. taulan adinaren eta sexuaren araberako banaketa jaso da. Kasuen %80 60-89 urte bitarteko gizon-emakumeenak dira, eta gizonen kasuen %8 eta emakumeen kasuen %18, 90 urtetik gorako pertsoneri dagozkie.

Ospitalizazio-motari dagokionez, ospitale publikoetako ospitalizazioen %34 larrialdikoak dira; ospitale pribatuetan, ordea, ospitalizazioen %100 ospitalizazio programatuak dira (21. taula).

Alta-motari dagokionez, ospitale publikoetan, alden %70en norakoa etxea da; ospitale pribatuetan, berriz, alden %50. Bestalde, heriotzen ehunekoa oso desberdina da. Datu horiek zentro horietan artatutako kasuen heterogeneotasuna islatzen dute. Gainerako norakoak 22. taulan xehatu dira.

23. taulan, altak diagnostiko- eta adin-taldearen arabera jaso dira. Bi sexuen guztizko kopuruan, bi talde ohikoenak "V kodearekin" eta arnas aparatuko gaixotasunekin zerikusia duten diagnostikoak edo arazoak dira. Termino erlatiboetan, emakume gehiagok dute "V kodearekin" erlazionatutako diagnostiko edo arazoren bat, eta gizon gehiagok dituzte arnas aparatuko gaixotasunak.

Diagnostiko-taldeen eta lurralde historikoen arabera altei dagokienez (24. taula), termino erlatiboetan, alde nabarmenak daude zenbait diagnostiko-taldetan. Alde horiek egiaztatzea komeniko litzateke, lurraldeen arteko ospitalizazio-eredu desberdinek eragiten dituzten, edo, hein handi batean, kodetze-irizpideetan dauden aldeak sortutakoak diren jakiteko.

25. taulan egonaldi ertain-luze publiko eta pribatuko 25 diagnostiko ohikoenak jasotzen dira, sexuka. Diagnostiko nagusiaren lehen hiru digituak erabili dira horretarako. "Errehabilitazio-prozedurak eskatzen dituzten zainketak" eta "susperraldia" dira bi ospitalizazio-kausa nagusiak emakumeetan, eta "errehabilitazio-prozedurak eskatzen dituzten zainketak" eta bronkitis kronikoa, gizonetan. "Errehabilitazio-prozedurak eskatzen dituzten zainketak" dira, halaber, egonaldi ertain-luzeen kausa garrantzitsuena.

LABURPENA

- 2009an EAEko ospitale publiko eta pribatuetan 325.998 alta aitortu ziren (hau da, 2008an baino %0,7 gutxiago).
- Ohiko ospitalizazioko egonaldiaren batezbestekoa 2,6 egun gehiagokoa da ospitale publikoetan, pribatuetan baino (6,7 publikoetan eta 4,1 pribatuetan).
- Akutuen ospitale publikoetako ospitalizazioen %71 larrialdikoak dira; akutuen ospitale pribatuetan, ordea, ospitalizazioen %77 ospitalizazio programatuak dira.
- Alta gehien ematen dituzten zerbitzuak traumatologia, kirurgia orokorra, barne-medikuntza eta tokoginekologia dira.
- Gizonetan, ospitalizazio gehienak 60-74 adin-tartean izaten dira; emakumeetan, berriz, bi adin-tarte daude: 30-44 artekoa eta 75-89 artekoa.
- Lehenik, bihotz-gutxiegitasuna eta, bigarrenik, kolelitiasia dira ohiko ospitalizazioaren bi kausa nagusiak akutuen ospitale publikoetan, diagnostiko nagusiaren hiru digituak kontuan hartuta. Akutuen ospitale pribatuetan, berriz, belauneko barne-asaldura eta osteoartrosia dira alta emateko bi kausa ohikoenak.
- Akutuen ospitale publikoetako ohiko ospitalizazioko prozedura ohikoena "eskuz lagundutako beste erditze bat" da emakumeetan, eta "maskuriko lesio edo ehunaren beste eszisio edo suntsitze transuretral bat" gizonetan. Akutuen ospitale pribatuetan, berriz, prozedura ohikoenak hauek dira: belauneko artroskopia gizonetan, eta "eskuz lagundutako beste erditze bat" emakumeetan.
- Kirurgia handi ambulatorioko kasuen batez besteko adina handiagoa da akutuen ospitale publikoetan pribatuetan baino (61,0 eta 56,5).

- Kirurgia handi anbulatorioko prozedura ohikoenak "kristalinoko ebakuntzak" dira, alde handiz, bi sexuetan, ospitale publiko nahiz pribatuetan.
- Egonaldi ertain-luzeko ospitaleetako batez besteko egonaldia oso aldakorra da.
- Egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoetan, ospitalizazioen %34 larrialdiak dira; ospitale pribatuetan, ordea, ospitalizazioen %100 programatuak dira.
- "Errehabilitazio-prozedurak eskatzen dituzten zainketak" eta "susperraldia" dira lehenengo ospitalizazio-kausak egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan.

BIBLIOGRAFIA

1. 303/1992 Dekretua, azaroaren 3koa, ospitaleetako alden gutxieneko oinarritzko datu-bilduma arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako alden erregistroa sortzeko dena (EHAA, 1992/12/1).
2. Euskadiko ospitaleetako alden DGOBren erregistroaren eskuliburu teknikoa, 2. bertsioa, 1996. Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza.
3. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 9. berrikuspena. Aldaketa Klinikoa (GNS-9-AK), 6. argitalpena. Osasun eta Kontsumo Ministerioa, 2008
4. Ospitaleetako alden erregistroko txostena, 2008. [Publicaciones, informes y estudios - Departamento de Sanidad - Gobierno Vasco - Euskadi.net - La Salud en Cifras: Estado de Salud](#)

Esker ona

Ospitaleetako aldei buruzko DGOB datuak jasotzen laguntzen duten profesional guztiei, informazio horren kalitatea ahalik eta onena izateko egiten duten ahaleginagatik.

1. taula. Altak, guztira, EAEn, ospitale-motaren eta asistentzia-motaren arabera; 2009.

Ospitale-mota	Asistentzia-mota				Guztira**	
	Ohiko ospitalizazioa *		Prozesu programatu ambulatorioak			
	Kasu-kop.	%	Kasu-kop.	%	Kasu-kop.	%
Akutuen ospitale publikoak	188.279	76,6	45.247	56,5	233.526	71,6
Akutuen ospitale pribatuak	48.284	19,6	34.747	43,4	83.033**	25,5
Egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoak	8.185	3,3	45	0,1	8.230	2,5
Egonaldi ertain-luzeko ospitale pribatuak	1.205	0,5	4	0,0	1.209	0,4
Guztira	245.953	100	80.043	100	325.998	100

* Multzo honetan egun bat gaino gutxiagoko egonaldia izan duten 3.293 ospitalizazio urgente sartu dira.

** Bi kasutan ezin izan da asistentzia-mota zehaztu.

2. taula. Altak EAEn, ospitale-motaren eta bizilekuaren arabera; 2009.

Ospitale-mota	EAEn bizi da					
	Bai			Ez		
	Asistentzia-mota		Guztira	Asistentzia-mota		Guztira
	Ohiko ospitalizazioa	Prozesu programatu ambulatorioak		Ohiko ospitalizazioa	Prozesu programatu ambulatorioak	
Akutuen ospitale publikoak	184.384	44.553	228.937	3.895	694	4.589
Akutuen ospitale pribatuak	45.704	33.564	79.268	2.580	1.183	3.763
Egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoak	8.055	44	8.099	130	1	131
Egonaldi ertain-luzeko ospitale pribatuak	1.202	4	1.206	3	0	3
GUZTIRA	239.345	78.165	317.510	6.608	1.878	8.486

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob)

3. taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioetan izandako diagnostikoen eta prozeduren batez bestekoa, 2009.

Ospitale-mota/Ospitalea		Alta-kop.	Diagnostikoaren batez bestekoa	Diagnostiko nagusirik gabe	Prozedura bidezko alta-kop.	Prozeduraren batez bestekoa
Akutuen ospitale publikoak	Santiago	10.833	3,1	0	6.003	1,9
	Txagorritxu	19.164	4,2	0	13.854	2,0
	Bidasoa	4.689	4,3	0	1.881	1,2
	Debagoiena	3.795	3,1	0	1.753	1,3
	Donostia	42.985	4,8	1	27.480	1,9
	Zumarraga	6.675	3,5	0	3.290	1,1
	Mendaro	5.543	4,8	0	2.562	1,3
	Gurutzeta	37.128	4,4	0	32.143	2,3
	San Eloy	4.966	3,4	0	2.412	1,4
	Basurtu	30.222	4,4	0	19.584	1,8
	Galdakao-Usansolo	18.385	3,9	0	14.899	2,6
	Guztira	184.385	4,3	1	125.861	2,0
Akutuen ospitale pribatuak	La Esperanza	1.229	1,2	0	1.229	1,6
	San José Poliklinika.	1.613	1,9	0	1.366	1,6
	V. Pilar	1.891	1,4	0	1.459	1,3
	Onkologikoa	2.561	2,6	0	2.353	1,6
	Mutualia-Pakea	511	1,9	0	450	2,5
	Gipuzkoako Poliklinika.	8.713	3,4	13	8.309	2,2
	Quirón-Donostia	1.865	1,8	0	1.652	1,7
	Asunción	3.512	2,7	0	1.377	1,2
	Indautxu	1.312	1,0	4	646	1,0
	San Fco. Javier	1.773	1,6	0	1.666	1,3
	Vicente San Sebastián	7.629	2,7	0	4.201	1,7
	Virgen Blanca	3.711	1,3	0	2.678	1,1
	Gurutze Gorria-Bilbao	2.474	1,0	0	2.388	1,0
	Mutualia-Ercilla	825	2,9	0	688	1,8
	Sanatorio Bilbaino	1.551	1,0	0	1.470	1,0
	Guimón	1.250	1,0	0	1.250	1,0
	Intermutual	1.228	1,1	0	998	1,0
	S. Juan Dios-Santurtzi	2.056	2,3	0	1.771	1,0
Guztira	45.704	2,2	17	35.951	1,5	
Egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoak	Leza	255	2,5	0	0	0
	Amara	934	9,7	0	562	1,9
	Santa Marina	4.662	8,6	0	2.292	1,8
	Gorliz	2.204	5,3	0	1.242	3,4
	Guztira	8.055	7,6	0	4.096	2,3
Egonaldi ertain-luzeko ospitale pribatuak	Araba klinika	212	1,8	0	0	0
	Matía	990	5,1	0	0	0
	Guztira	1.202	4,6	0	0	0
GUZTIRA	239.346	4,0	18	165.908	1,9	

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob).

4. taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitalizazioen altak, ospitale-motaren, ospitalearen, batez besteko adinaren eta batez besteko egonaldiaren arabera, 2009.

Ospitale-mota/Ospitalea		Alta-kop.	Batez beste-ko adina	Batez besteko egonaldia
Akutuen ospitale publikoak	Santiago	10.833	63,0	6,7
	Txagorritxu	19.164	54,3	6,3
	Bidasoa	4.689	64,8	6,7
	Debagoiena	3.795	55,0	4,6
	Donostia	42.984	54,6	7,2
	Zumarraga	6.675	54,2	4,9
	Mendaro	5.543	61,1	6,0
	Gurutzeta	37.128	50,2	7,4
	San Eloy	4.966	67,8	6,5
	Basurtu	30.222	57,5	6,5
	Galdakao	18.385	62,6	6,2
	Guztira	184.384	56,2	6,7
	Akutuen ospitale pribatuak	La Esperanza	1.229	50,1
San José Poliklinika.		1.613	54,7	4,3
V. Pilar		1.891	54,4	3,2
Onkologikoa		2.561	59,9	6,3
Mutualia-Pakea		511	56,4	5,4
Gipuzkoako Poliklinika.		8.713	55,5	3,7
Quirón-Donostia		1.865	43,6	2,3
Asunción		3.512	65,4	6,5
Indautxu		1.312	55,3	6,7
San Fco. Javier		1.773	49,7	3,0
Vic. San Sebastián		7.629	61,4	4,7
Virgen Blanca		3.711	57,0	4,1
Gurutze Gorria-Bilbao		2.474	59,0	3,7
Mutualia-Ercilla		825	42,8	2,2
Sanatorio Bilbaino		1.551	53,9	2,7
Guimón		1.250	52,3	2,0
Intermutual		1.228	42,2	3,4
S. Juan Dios-Santurtzi		2.056	56,4	3,8
Guztira		45.704	56,2	4,1
GUZTIRA		230.088	56,2	6,2

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob).

5. taula. EAEn bizi direnen ospitalizazio-motak, ohiko ospitaleratzeetan, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan.

Ospitalizazio -mota	Ohiko ospitaleratzea			
	Akutuen ospitale publikoak		Akutuen ospitale pribatuak	
	Kop.	%	Kop.	%
Urgentea	131.519	71,3	10.452	22,9
Programatua	52.865	28,7	35.252	77,1
Guztira	184.384	100	45.704	100

6. taula. EAEn bizi direnen alta-motak, ohiko ospitaleratzeetan, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, 2009.

Alta-mota	Ohiko ospitaleratzea			
	Akutuen ospitale publikoak		Akutuen ospitale pribatuak	
	Kop.	%	Kop.	%
Ohiko bizitokira	170.051	92,2	43.719	95,7
Akutuen ospitalera eramatea	1.837	1,0	652	1,4
Egonaldi ertain-luzeko ospitalera eramatea	3.020	1,6	202	0,4
Gizarte-egoitzara eramatea	899	0,5	23	0,1
Heriotza	6.601	3,6	983	2,2
Borondatezko alta	481	0,3	3	0,0
Beste kausa batzuk	1.495	0,8	122	0,3
Guztira	184.384	100	45.704	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob).

7. taula. EAEn bizi direnen alta-zerbitzuak, ohiko ospitaleratzeetan, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, 2009.

Alta hartu den zerbitzua	Guztira		Akutuen ospitale publikoak		Akutuen ospitale pribatuak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	Traumatologia eta ortopedia	30.705	13,3	18.049	9,8	12.656
Kirurgia orokorra	27.888	12,1	20.492	11,1	7.396	16,2
Barne-medikuntza	27.138	11,8	21.743	11,8	5.395	11,8
Tokoginekologia	24.288	10,6	23.534	12,8	754	1,6
Kardiologia	16.065	7,0	14.757	8,0	1.308	2,9
Pneumologia	11.947	5,2	11.219	6,1	728	1,6
Urologia	11.340	4,9	8.653	4,7	2.687	5,9
Digestio-zerbitzua	10.197	4,4	10.081	5,5	116	0,3
Neurologia	7.642	3,3	7.300	4,0	342	0,7
Onkologia medikoa	6.273	2,7	4.631	2,5	1.642	3,6
Otorrinolaringologia	6.005	2,6	4.345	2,4	1.660	3,6
Pediatria	5.635	2,4	5.575	3,0	60	0,1
Kirurgia baskularra eta angiologia	4.830	2,1	3.290	1,8	1.540	3,4
Psikiatria	4.467	1,9	4.177	2,3	290	0,6
Ginekologia	4.432	1,9	968	0,5	3.464	7,6
Kirurgia plastikoa	3.440	1,5	1.601	0,9	1.839	4,0
Infekziosoak-Hiesa	3.083	1,3	3.083	1,7	0	0
Neurokirurgia	2.963	1,3	2.756	1,5	207	0,5
Obstetria	2.491	1,1	2.484	1,3	7	0,0
Hepatologia klinikoa	2.243	1,0	2.236	1,2	7	0,0
Kirurgia kardiobaskularra	1.998	0,9	1.075	0,6	923	2,0
Nefrologia	1.995	0,9	1.826	1,0	169	0,4
Pediatria-Neonatalogia	1.757	0,8	1.757	1,0	0	0
Medikuntza intentsiboa	1.696	0,7	1.665	0,9	31	0,1
Kirurgia torazikoa	1.468	0,6	1.250	0,7	218	0,5
Kirurgia pediatrikoa	1.117	0,5	1.100	0,6	17	0,0

Alta hartu den zerbitzua	Guztira		Akutuen ospitale publikoak		Akutuen ospitale pribatuak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Kirurgia maxilofaziala	1.084	0,5	843	0,5	241	0,5
Endokrinologia	894	0,4	890	0,5	4	0,0
Erreumatologia	811	0,4	811	0,4	0	0
Oftalmologia	721	0,3	529	0,3	192	0,4
Erradiologia interbentzionista	442	0,2	424	0,2	18	0,0
Erradioterapia	398	0,2	0	0	398	0,9
Traumatologiako urgentsiak	339	0,1	0	0	339	0,7
Onkoerradioterapia	335	0,1	335	0,2	0	0
Zainketa aringarrien unitatea	297	0,1	281	0,2	16	0,0
Anestesia eta bizkortzea	252	0,1	242	0,1	10	0,0
Medikuntza orokorra	235	0,1	0	0	235	0,5
Medikuntza nuklearra	195	0,1	118	0,1	77	0,2
Alergologia	175	0,1	21	0,0	154	0,3
Farmazia	162	0,1	0	0	162	0,4
Minaren unitatea	130	0,1	115	0,1	15	0,0
Egonaldi ertaineko psikiatria	127	0,1	0	0	127	0,3
Birgaitzea	79	0,0	50	0,0	29	0,1
Dermatologia	74	0,0	36	0,0	38	0,1
Erradiodiagnostikoa	48	0,0	1	0,0	47	0,1
Larrialdi orokorrak.	46	0,0	1	0,0	45	0,1
Psikologia	33	0,0	0	0	33	0,1
Haur psikiatria	32	0,0	32	0,0	0	0
Neurofisiologia klinikoa	26	0,0	0	0	26	0,1
Beste batzuk	27	0,0	9	0	18	0,0
Analisi klinikoak	16	0,0	0	0	16	0,0
Odontoestomatologia	8	0,0	0	0	8	0,0
Guztira	230.089	100	184.385	100	45.704	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob).

8. taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitaleratzeetako altak, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, adinaren eta sexuaren arabera, 2009.

Adin-taldea	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0-14	6.548	5,8	4.651	4,0	11.199	4,9
15-29	6.954	6,1	10.601	9,1	17.555	7,6
30-44	14.335	12,7	30.185	25,8	44.520	19,3
45-59	23.330	20,6	17.038	14,6	40.368	17,5
60-74	32.265	28,5	22.110	18,9	54.375	23,6
75-89	28.014	24,8	28.205	24,1	56.219	24,4
>=90	1.666	1,5	4.178	3,6	5.844	2,5
Guztira	113.112	100	116.968	100	230.080	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob).

9a taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitaleratzeen altak, akutuen ospitale publikoetan, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera, 2009.

Lurralde Historikoa	Guztira				Gizonak				Emakumeak			
	Alta-kop.	Batez besteko adina	Berrosptaliza-zioaren urteko tasa	Tasa*	Alta-kop.	Batez besteko adina	Berrosptaliza-zioaren urteko tasa	Tasa*	Alta-kop.	Batez besteko adina	Berrosptaliza-zioaren urteko tasa	Tasa*
Araba	31.364	56,8	1,30	98,8	15.627	58,8	1,37	98,6	15.737	54,8	1,23	99,0
Bizkaia	89.649	56,2	1,25	78,3	43.622	58,0	1,31	78,8	46.027	54,5	1,20	77,8
Gipuzkoa	63.372	56,1	1,27	91,2	30.224	57,9	1,33	88,6	33.148	54,3	1,23	93,7
EAE.	184.385	56,2	1,27	85,5	89.473	58,1	1,33	85,0	94.912	54,5	1,21	86,0

* Erabilera-tasa, 1.000 biztanleko

9b taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitaleratzeen altak, akutuen ospitale pribatuetan, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera, 2009.

Lurralde Historikoa	Guztira				Gizonak				Emakumeak			
	Alta-kop.	Batez besteko adina	Berrosptaliza-zioaren urteko tasa	Tasa*	Alta-kop.	Batez besteko adina	Berrosptaliza-zioaren urteko tasa	Tasa*	Alta-kop.	Batez besteko adina	Berrosptaliza-zioaren urteko tasa	Tasa*
Araba	3.382	52,4	1,11	10,7	1.967	51,0	1,13	12,4	1.415	54,4	1,10	8,9
Bizkaia	23.243	56,4	1,14	20,3	11.372	56,5	1,16	20,5	11.871	56,3	1,12	20,1
Gipuzkoa	19.078	56,6	1,18	27,5	10.303	56,5	1,20	30,2	8.775	56,6	1,16	24,8
EAE.	45.703	56,2	1,15	21,2	23.642	56,1	1,17	22,4	22.061	56,3	1,13	20,0

* Erabilera-tasa, 1.000 biztanleko

10. taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitaleratzeen altak, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, diagnosi-multzoaren eta sexuaren arabera, 2009.

GNS-9-AK Diagnosi-multzoa	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaixotasun infekzioso eta parasitarioak	1.998	1,8	1.351	1,2	3.349	1,5
Neoplasiak	11.879	10,5	9.875	8,4	21.754	9,5
Gaixotasun endokrinoak, metabolikoak eta immunitarioak	1.608	1,4	2.248	1,9	3.856	1,7
Odoleko eta organo hematopoietikoko gaixotasunak	1.288	1,1	1.328	1,1	2.616	1,1
Buru-nahasmenduak	2.585	2,3	2.058	1,8	4.643	2,0
Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoko gaixotasuna	3.285	2,9	3.231	2,8	6.516	2,8
Zirkulazio-aparatuko gaixotasuna	18.250	16,1	13.421	11,5	31.671	13,8
Arnas aparatuko gaixotasuna	14.742	13,0	10.060	8,6	24.802	10,8
Digestio-aparatuko gaixotasuna	17.109	15,1	12.239	10,5	29.348	12,8
Aparatu genitourinarioko gaixotasuna	6.350	5,6	7.166	6,1	13.516	5,9
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko konplikazioak	1	0,0	23.753	20,3	23.754	10,3
Larruazaleko eta azalpeko ehunetako gaixotasuna	1.447	1,3	1.119	1,0	2.566	1,1
Aparatu muskulu-eskeletikoko eta ehun konektiboetako gaixotasuna	9.717	8,6	9.820	8,4	19.537	8,5
Sortzetiko anomaliak	732	0,6	738	0,6	1.470	0,6
Patologia perinatale	967	0,9	814	0,7	1.781	0,8
Gaizki definitutako sintomak, seinaleak eta egoerak	7.169	6,3	5.924	5,1	13.093	5,7
Lesioak eta pozoidurak	10.911	9,6	8.938	7,6	19.849	8,6
V kodea.	3.066	2,7	2.881	2,5	5.947	2,6
Kodetu gabeak	9	0,0	9	0,0	18	0,0
Guztira	113.113	100	116.973	100	230.086	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob).

T11. taula. EAEn bizi direnen ohiko ospitaleratzeen altak, akutuen ospitale publikoetan eta pribatuetan, diagnosi-multzoaren eta lurralde historikoaren arabera, 2009.

GNS-9-AK Diagnosi-multzoa	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaixotasun infekzioso eta parasitarioak	589	1,7	1.470	1,3	1.290	1,6
Neoplasiak	2.910	8,4	11.681	10,3	7.163	8,7
Gaixotasun endokrinoak, metabolikoak eta immunitarioak	592	1,7	1.746	1,5	1.518	1,8
Odoleko eta organo hematopoietikoko gaixotasunak	434	1,2	1.265	1,1	917	1,1
Buru-nahasmenduak	794	2,3	2.402	2,1	1.447	1,8
Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoko gaixotasuna	940	2,7	3.450	3,1	2.126	2,6
Zirkulazio-aparatuko gaixotasuna	4.464	12,8	15.562	13,8	11.645	14,1
Arnas aparatuko gaixotasuna	4.196	12,1	10.675	9,5	9.931	12,0
Digestio-aparatuko gaixotasuna	4.394	12,6	15.103	13,4	9.851	11,9
Aparatu genitourinarioko gaixotasuna	2.089	6,0	6.313	5,6	5.114	6,2
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko konplikazioak	3.412	9,8	11.758	10,4	8.584	10,4
Larruazaleko eta azalpeko ehunetako gaixotasuna	351	1,0	1.237	1,1	978	1,2
Aparatu muskulu-eskeletikoko eta ehun konektiboetako gaixotasuna	2.971	8,6	9.190	8,1	7.376	8,9
Sortzetiko anomaliak	231	0,7	735	0,7	504	0,6
Patologia perinatala	262	0,8	810	0,7	709	0,9
Gaizki definitutako sintomak, seinaleak eta egoerak	2.312	6,7	6.206	5,5	4.575	5,5
Lesioak eta pozoidurak	2.977	8,6	10.172	9,0	6.700	8,1
V kodea.	828	2,4	3.111	2,8	2.008	2,4
Kodetu gabeak	0	0	4	0,0	14	0,0
Guztira	34.746	100	112.890	100	82.450	100

Iturria: Ospitaleetako Alten Erregistroa (dgob)

12. taula. EAEn bizi direnen diagnostiko nagusi ohikoenak (3 digituko diagnosi-kategoriaren arabera) Osakidetzako akutuen ospitaleetako ohiko ospitaleratzeetan, 2009.

